5. Personal con contrato (Plantilla+Equipo técnico) Por cada persona contratada - 5 puntos.	Hasta 25 puntos
6. Calidad e innovación – Canales de difusión (prensa, cartelería,) y uso de TICs. (web, blog, RRSS, ...) - 1 punto por cada canal. – Sistemas de calidad y gestión (programa 3K, ...) - 2 puntos.	Hasta 5 puntos

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1293 Data: 04/06/2026

Baliozkotze Kod.: WPOPE673KMAAXOCF9ITZY293Y
Egiazapena: https://galtakao.ezlezelektroikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. ornaidea, guztira 25
cve: BOB-2026a092-(11-2495)





Criterios relativos al proyecto o programa (máximo 105 puntos)		
Criterios generales	Criterios específicos - Puntuación	
1. CALIDAD TÉCNICA Y COHERENCIA DEL PROYECTO	<ul style="list-style-type: none"> — Metodología - 1 punto. — Memoria del proyecto - 0,5 puntos. — Formas de evaluación y control - 1 punto. — Presupuesto - 1 punto. — Objetivos previstos - 1 punto. — Cronograma - 0,5 puntos. 	Hasta 5 puntos
2. ESFUERZO FINANCIERO: % AUTOFINANCIACIÓN	<ul style="list-style-type: none"> — 1%-40% del presupuesto - 3 puntos. — 41%-60% del presupuesto - 5 puntos. — Más del 60% del presupuesto - 8 puntos. 	Hasta 8 puntos
3. % PERSONAS ABONADAS POLIDEPORTIVO	<ul style="list-style-type: none"> — 10%-30% - 1 punto. — 31%-60% - 2 puntos. — Más de 60% - 7 puntos. 	Hasta 7 puntos
Para el cálculo del porcentaje se deberá presentar junto con el resto de documentación, el listado las personas abonadas con licencia federada, con nombre, apellidos y DNI, con el fin poder realizar la comprobación por el Área de deportes.		
4. TRATAMIENTO DE LA INMIGRACIÓN	<ul style="list-style-type: none"> — Deportistas inmigrantes o acciones específicas de inmigración - 4 puntos. 	Hasta 4 puntos
5. TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD FUNCIONAL	<ul style="list-style-type: none"> — Deportistas con diversidad funcional o acciones específicas de integración - 6 puntos. 	Hasta 6 puntos
6. PERSPECTIVA DE GENERO	<ul style="list-style-type: none"> — Más del 40% de deportistas féminas - 3 puntos. — Presencia equilibrada de mujeres (40%-60%) en junta directiva - 5 puntos. — Presidencia ostentada por mujer - 2 puntos. — Existencia de protocolo o plan para la prevención y actuación en casos de acoso sexual y/o por razón de sexo - 5 puntos 	Hasta 15 puntos
7. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA*	<ul style="list-style-type: none"> — Participación en el Plan de Promoción del Euskera en el Deporte del Ayuntamiento de Galdakao - 3 punto — Poseer o estar en proceso del diploma de reconocimiento Harrobi - 2 punto — Por persona entrenadora o monitora con acreditación mínima B2 o equivalente - 0,5 puntos hasta un máximo de 5 puntos. — Por persona entrenadora o monitora con acreditación C1 o equivalente - 1 punto hasta un máximo de 5 puntos. 	Hasta 15 puntos
8. COMPETICIONES NACIONALES	<ul style="list-style-type: none"> — Por competir en una de las 3 primeras categorías nacionales de cada disciplina. — 45 puntos. 	Hasta 45 puntos

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1293 Data: 04/06/2026

Baliozkotze Kod.: WPOPE673KMAAXOCF9ITZY293Y
Egiazapena: https://galdakao.euzelzeletronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialea, guztira 25
cve.: BOB-2026a092-(11-2495)





II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Galdakaoko Udala

Kirola arloko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoek behin betiko onspenari buruzko iragarkia.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 49. zenbakian, 2026ko martxoaren 12koan, argitaratu zen Galdakaon kirol federatua sustatzea helburu duten dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoek hasierako onarpena. Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, automatikoki behin betikotzat jotzen dira. Testua osorik argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

Galdakaon, 2026ko maiatzaren 7an.—Alkatea, Iñigo Arriandiaga Hernando

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1293 Data: 04/06/2026





KIROLEN FEDERATUARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— *Xedea eta helburuak*

Oinarri hauen xedea da Galdakaon kirol federatua bultzatu, sustatu eta garatzeko helburua duen dirulaguntza norgehiagoka-araubidean emateko berariazko arauak ezarzea.

2. artikulua.— *Indarraldia*

Oinarri hauen indarraldia mugagabea izango da, harik eta berariaz aldatu edo balio gabetu arte, edo ondoren emandako beste batzuegatik ordezkatu arte.

3. artikulua.— *Arau-esparrua*

1. Oinarri espezifiko hauek Galdakaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrak ezarritako arau-esparruan sartzen dira. Ordenantza hori 2005eko ekainaren 24ko udal Osoko Bilkuran onartu zen (2005eko irailaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 172. zenbakia) eta 2007ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez aldatu zen (2008ko otsailaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 23. zenbakia).

2. Konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak oinarri espezifiko hauetan aurreikusita-koaren arabera emango dira. Aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

- Galdakaoko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek Dirulaguntzak Ematea Arautzen duen Ordenantza Orokorra (2005eko irailaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 172 zenbakia), 2007ko azaroaren 28ko osoko bilkuraren erabakiz aldatua (2008ko otsailaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 23 zenbakia).
- Galdakaoko Udalaren aurrekontua betearazteko araua.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta oinarrizko izaera duten edo Toki Administrazioak osagarri gisa aplikatu behar dituen garapen-arauak, bai eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Bere izaeragatik aplika daitekeen beste edozein araudi.

3. Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzen ildoak kudeatzeko, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituko zaie, bai eta helburuak betetzeko efikaziari eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziari ere.

4. Oinarri hauen interpretaziotik, aplikaziotik edo ondorioetatik sortzen diren zalantzak dirulaguntza ematen duen organoak ebaztuko ditu.

4. artikulua.— *Dirulaguntzen deialdiko zenbatekoa*

Urtero, dagokion deialdian adieraziko da deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa eta zer aurrekontu-kredituri egozten zaizkion.

5. artikulua.— *Eskabideak aurkezteko modua eta epea*

5.1. Epea: Eskakerak Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratuko diren urteroko deialdietan adierazitako epean aurkeztuko dira.

5.2. Modua: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri hauei dagozkien dirulaguntzak jasotzeko eskabideak Galdakaoko Udalaren egoitza elektronikoa aurkeztu beharko dira, horretarako berariaz argitaratutako prozedura edo izapiderearen bidez. (<https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>)





Galdakaoko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratutako prozedura edo izapide espezifikoa bidez egingo da eskaera.

6. artikulua. — Erakunde onuradunek dirulaguntza lortzeko bete beharreko baldintzak

Galdakaoko Udalean erregistratuta dauden kirol-erakundeak onuradun izan ahalko dira, baldin eta dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran badaude edo oinarri arautzaile hauetako berariazko xedapenetan aurreikusitako inguruabarrak betetzen badituzte; betiere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte.

Honako egoera hauetan dauden entitateak ezingo dira onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zerrendatutako edozein.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala jaso izana, sexuagatiko, arrazagatiko edo erlijioagatiko bereizkeriagatiko zehapenak barne, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat izatea.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituztenak.
- Sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso dutenak, eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera debeku horrekin zigortutakoak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina onesten duena).
- Arau hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeak: 1/2023 Legegintzako Dekretua (aurrez aipatutakoa), edo 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako dena.

7. artikulua. — Dokumentu eta datu egiaztagarriak

1. Galdakaoko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei dagozkien beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzeko, salbu eta interesdunak berariaz aurka egiten badio; kasu horretan, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Gainera, interesdunak Udalaren esku dauden datu pertsonalak deklaratzeko dituen (NAN zenbakia, jakinarazpenetarako helbidea...), eskaeraren hartzaile den organoak, bere eskumenak baliatuz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Legean edo oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den beste edozein datu kontsultatuko da, eta dagokion eskabidean zehaztuko da.

Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Kirol arloak izapideak egiteko beharrezkoa den beste edozein datu edo dokumentu eskatu ahal izango du, legean edo oinarrietan eskatzen diren eta dagokion eskabidean zehaztuko diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

2. Eskabide elektronikoak zehaztuko du zer datu egiazta daitezkeen bitartekaritza sistemen bidez edo Galdakaoko Udalean dauden datu egiaztagarriak kontsultatuz, eta zer dokumentazio aurkeztu behar den.





3. Nolanahi ere, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Aurreko ekitaldian garatutako jardueren memoria, Udal honetan dirulaguntza bat lehenengo aldiz eskatzen bada.
 - b) Proiektu edo programaren laburpen-fitxa (eskabide elektronikoan eskatutako datuak bete edo berariazko eredia erantsi, eskabide elektronikoan hala aurreikusiten bada) eta garatutako proiektua.
 - c) Programa gauzatzeko aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu banakatua eta xehatua; beste erakunde publiko edo pribatu bati laguntza eskatu bazaio edo haiengandik laguntzarik jaso bada, hori ere zehaztu eta zenbatekoa adierazi (eskabide elektronikoan eskatutako datuak bete edo berariazko eredia erantsi, eskabide elektroniko horretan hala aurreikusten bada).
 - d) «Hartzekodunen orria» edo banku-titulartasunaren ziurtagiria, behar bezala beteta, udal honetan dirulaguntza eskatzen den lehen aldia bada edo bankuko datuak aldatu nahi badira.

8. artikulua.— *Eskabidean egindako akatsak zuzentzea*

Eskabideak deialdiaren arauan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta ohartaraziko dio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz; aurrez ebazpena emango da artikulua horretan aurreikusitako baldintzetan.

9. artikulua.— *Dirulaguntzak emateko prozedura*

Dirulaguntzak emateko araubidea norgehiagoka da, eta puntukako hainbanaketa-sistema ezartzen da, onartutako eskabide bat ere dirulaguntzarik gabe gera ez dadin.

Behin dirulaguntzak banatu eta gero, aurrekontu-partidan zenbatekoa soberan gertatzen bada eta eskatutakoa baino zenbateko txikiagoa egokitu zaion onartutako eskaerarik badago, soberakina puntuen arabera hainbanatuko da berriro eskatzaileen artean, kreditu erabilgarria agortu arte.

10. artikulua.— *Instrukzioa egiteko, antolatze eta ebazteko organo eskuduna, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, eta administrazio-isiltasunaren ondorioak*

- Instrukzioa egiteko organo eskuduna: Kirol arloko teknikaria.
- Emakida-proposamena egiteko organo eskuduna: gaiaren arabera dagokion Informazio Batzordea.
- Ebazteko eskumena duen organoa: alkatetza edo zinegotzitza delegatua.
- Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea: sei hilabete, dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Jakinarazi egingo dira bai emandako eta bai ukatutako dirulaguntzak, bai eta eman ez direnak ere (atzera egiteagatik, esku-bideari uko egiteagatik edo gerora sortutako ezintasun materialagatik onartu ez diren eskaerak).
- Administrazio-isiltasunaren ondorioa: ezestea.
- Berariazko edo isilbidezko behin betiko ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak: administrazio-bidea amaitzen duen behin betiko ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko alkate-udalburuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Bizkaiko Administrazioarekiko Auzietako dagokion epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia egoki irizitako beste edozein errekurtsio gorabehera.



**11. artikulua. — Erakunde onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntzak ematea arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 9. artikuluan ezarritakoak, eta, bereziki, dirulaguntza ematen duen organoari justifikatzea dirulaguntza ematea edo jasotzea baldintzatzen duten jarduera eta xedea bete direla, jarraian zehazten den moduan:

- a) Justifikatzeko gehieneko epea: dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko otsailaren 28an amaituko da epea.
- b) Justifikatzeko modua: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du informazio hau jasotzen duen justifikazio-kontuak:
 - Aurkeztutako proiektuaren edo programaren arabera, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Memoria; bertan jaso behar dira programa gauzatzeko egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.
 - Justifikazio-kontua (diruz lagundu daitezkeen diru-sarrera eta gastu guztien balantzea eta banakatzea; hain zuzen ere, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten dioten eta erakunde onuradunak benetan ordaindu dituen diru-sarrera eta gastuak).
 - Eskatutako programarako beste erakunde, entitate eta/edo pertsona publiko eta/edo pribatuetatik emandako eta/edo jasotako laguntzen eta/edo dirulaguntzen eta baliabide propioen banakatzea, idazkariak izenpetuta, entitate onuraduneko presidentearen oniritziarekin, diru-sarrera horien zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntza jaso duten jarduerari aplikatu zaiela justifikatzeko.
 - Beste erakunde publiko batzuek dirulaguntzak edo laguntzak emateko hartutako erabakien kopia.
 - Langileen gastuak, dietak, etab. nominen bidez justifikatuko dira. Eta diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak (obrak, ondasunak eta zerbitzuak), fakturen bidez edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliao duten edo administrazio-eraginkortasuna duten beste dokumentu batzuen bidez, zeinek dirulaguntza aplikatu izanaren arrazoizko ebidentzia izan behar duten.
 - Justifikazio-fakturek legezko baldintzak bete beharko dituzte, beraz, TicketBAI sistemari edo antzekoari lotutako pertsona fisiko eta juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek egindako fakturen kasuan, QR kodea eta TicketBAI identifikatzailea jaso beharko dituzte, onar daitezen.
 - Justifikatzeko zailak diren gastuen kasuan, gastu-egiaztariak onartuko dira (tiketak, barik...), gehienez ere aurrekontuaren %10ekoak, eta inolaz ere ez 200 eurotik gorakoak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak edo euskara erabiltzea, bai dirulaguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta hedapenean, bai euskarri grafikoetan eta ikus-entzunezko hedabideetan (mota guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, etab.).

Bestalde, euskara erabili beharko da diruz lagundutako jardueraren esku-hartze publiko guztietan.
 - Gastuak justifikatzeko dokumentuek deialdiaren ekitaldi ekonomikoko data izan beharko dute, eta honako datu hauek jaso beharko dituzte:
 - Onuradunaren identifikazioa.
 - Gastuaren deskribapena; gastuak programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egon beharko du. Halaber, justifikazioaren oinarri diren dokumentuak programa justifikatzaile mugatuko dira soilik.
- c) Justifikatu beharreko zenbatekoa: Galdakaoko Udalak emandako zenbatekoaren %100 justifikatu beharko da. 60.000,00 euro edo gehiago bada. Erakundearen gastuen kapituluaren %100 justifikatu beharko du.





- d) Itzultzeko betebeharra: justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandu-tze-interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua 1. atalean ezarritako baldintzetan.
- e) Dirulaguntzaren erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du egiten dituen dokumentu guztietan, bai eta sortzen edo ordezkatzeko dituen ekintza guztietan ere, honako arau hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.

12. artikulua.— *Erakunde onuradunak egindako dirulaguntzaren publizitatea*

12.1. Entitate onuradunak lege ezarritako hedapen-neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo edozein motatako jarduketan Galdakaoko Udalaren lankidetzari dagokionez.

Era berean, dirulaguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundeetan, bai euskarri grafikoan, bai ikus-entzunezko hedabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, etab.) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak edo euskara erabiliko dira.

Bestalde, publizitate eta jakinarazpen guztietan jarduera zein hizkuntzatan egingo den zehaztuko da.

12.2. Zabalkunde-neurriak diruz lagundutako xedera egokitu beharko dira, bai formari bai iraupenari dagokionez, eta hauek izan daitezke: dirulaguntza eman duen erakundearen irudi instituzionala sartzea, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoen edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

12.3. 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketak betez, publizitatean ezin izango da tabakoaren eta edari alkoholduen kontsumoa inola ere sustatu (kartelak, babesletza, sariak, etab.).

12.4. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena betetze aldera, jardueren publizitatean hizkera ez-sexista erabili beharko da; halaber, ezingo da azaldu pertsonak giza duintasun gutxiago edo gehiago dutenik sexuaren arabera, ezta pertsonak objektu sexual huts gisa aurkeztu ere, eta ezingo da emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu eta/edo bultzatu. Era berean, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexuen, rolen eta genero-identitateen aniztasuna bultzatuko da.

13. artikulua.— *Diruz lagundu daitezkeen gastuak*

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako programaren edo jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzaren justifikazioan garatutako jardueren memorian sartzen direnak:

- Arbitrajeak, epaileak, kronometratzaileak.
- Klubaren edo jokalarien kirol-lizentziak izapidetzeko kuotak/tasak/altak.
- Txapelketak/lehiaketak antolatzeke edo horietan parte hartzeko eskubideak.
- Kirol-mutualitateen kuotak.
- Kirol-aseguruetako afiliazio-kuotak.
- Klubaren erantzukizun zibileko asegururak.
- Gastu medikoak/botika-kutzak/farmazia-materiala.
- Kirol-material teknikoa (inbentarioko materiala izan ezik).
- Jardueraren berariazko kirol-materialaren eta kirol-ekipamenduaren gastuak.





- Garaikurrak, sariak, hornidura eta kirol-ekitaldiak antolatzearen ondoriozko beste gastu batzuk.
- Ondasun propioak eta errentan hartutakoak konpontzeko, mantentzeko eta zaintzeko gastu txikiak.
- Bulegoko material inbentariaezina erostea.
- Soilik faktura bat onartuko da kontzeptu honetan: otordu, afari edo ospakizun gastronomikoa, hala nola denboraldiko itxituretan, galetan, kirol-ekitaldietan edo garaipenetan egindakoak. Gastu hori jardueran parte hartzen dutenentzat soilik izan beharko da, eta gehienez 20 euro pertsonako (gehienez 300 euro guztira); parte-hartzaile horiek kirolariak, arbitroak, teknikariak eta/edo zuzendaritza taldekoak izan daitezke.
- Proiektuarekin lotura zuzena duten erakundeko langileen soldatak eta Gizarte Segurantzza (teknikariak, kirol-kudeaketako edo -zuzendaritzako langileak...).

14. artikulua.— *Kanpo utziko diren gastuak*

Ez dira inola ere diruz lagunduko jarduerarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak:

- Altzariak, ekipoak eta ondasun inbentariagarriak erostea.
- Inbertsio- edo amortizazio-gastuak egitea.
- Banku-kontuen interesak, errekarju zordunak, udal-tasen eta -zergen ordainagiriak, kreditu-eragiketetatik eratorritako gastuak, finantza-gastuak.
- Isunak eta zehapen administratibo eta penalak, bai eta prozedura judizialen gastuak ere.

15. artikulua.— *Diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin azpikontratatzea*

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren gauzatze partziala soilik azpikontratatu ahalko du hirugarrenekin, eta Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan aurreikusitako baldintza eta betebeharrak bete beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioaren ehunekoa ezin izango da diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50 baino handiagoa izan.

16. artikulua.— *Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa*

Oro har, dirulaguntzak alde aurretik ordainduko dira, justifikatu aurretik, eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa ordainduko da, inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari dagozkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan agertzen den erakundearen kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta erakunde onuradunak dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu eta justifikazio horren epea amaituta badago. Era berean, ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakundeak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu hala eskatu zaionean.

Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, eskatutako zenbatekoa hartuko da oinarritzat, eta lortutako puntuen arabera ehunekoa aplikatuko zaio zenbateko horri.

Eskabideek ez badute gainditzen laguntza-lerroan erabilgarri dagoen gehieneko kreditua, lerroaren guztizko zenbateko erabilgarria eskatzaileen artean hainbanatuko da; ezingo da gainfinantzaketarik gertatu, hau da, emandako zenbatekoak ezingo du eskatutakoa gainditu.

Dirulaguntzak pilatzeagatik gainfinantzaketarik gertatuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du Galdakaoko Udalak emandako zenbatekoa, finantzatutako guztizkotik udalak emandako zenbatekoaren proportzioan.



**17. artikulua.— Beste dirulaguntza batzuekin bateragarritasuna**

Galdakaoko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik iritsitakoekin.

Hala ere, finantzaketa bikoitza saihesteko, bateraezina izango da Galdakaoko Udalak emandako beste edozein dirulaguntza (konkurrentzia bidezkoa edo izenduna), oinarri hauetan jasotako kirol federatuaren programa finantzatzeko, salbu eta Berdintasuneko eta Euskarako udal-arloek emandako dirulaguntzak, horiek bateragarritzat joko baitira zeharkako gaitzat hartzen direlako.

Nolanahi ere, dirulaguntzen eta bestelako iturrien bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

18. artikulua.— Gauzatzeko-epeak

Garatutako proiektuak deialdiari dagokion urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaitu beharko dira.

19. artikulua.— Publizitate aktiboa eta gardentasuna:

19.1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako printzipioak aplikatzeko, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat, Udalak, gutxienez, informazio hau bidaliko du, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzeko: dirulaguntzaren oinarri arautzaileak, deialdia, programa, egozten den aurrekontu-kreditua, dirulaguntzaren xedea edo helburua, onuradunen identifikazioa, emandako eta benetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, itzulketen ebazpenak eta ezarritako zehapenak.

Ohartarazten da, aipatutako 20. artikulua araberak, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiari datu pertsonalak lagatzeko, ez dela beharrezkoa izango eraginpean dagoenaren baimena.

Gardentasun-atariaren bidez ere eskuratu ahalko da informazioa.

19.2. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3.b) artikuluko kasuetan dauden onuradunen kasuan, aplikatu beharreko publizitate aktiboko betebeharrak egokitu beharko da erakunde onuraduna.

Era berean, publizitate aktiboko betebeharrak izango dituzte urtebeteko epean Galdakaoko Udalarengandik edo haren erakunde autonomoengandik 100.000 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, edo urteko diru-sarrera guztien %40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikoa denean, betiere zenbatekoa gutxienez 5.000 eurokoa bada.

Oinarri hauen ondorioetarako, 50.000 eurotik beherako urteko aurrekontua duten erakunde onuradunek, publizitate aktiboko betebeharrak betetzeko, bitarteko hauek erabili ahalko dituzte: jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienak ematen dizkieten administrazio publikoak haien eskura jarritako bitarteko elektronikoak.

20. artikulua.— Datu pertsonalen tratamendua

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko, dokumentazioaren parte gisa emandako datuak dirulaguntza emateko prozeduran baino ez dira erabiliko, eta prozedura horren deialdia oinarri hauetan arautzen da.

Tratamenduaren helburua hau da: zenbait udal-eremutan sustapen jarduerak eta ekintzak garatzea. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, eta tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubideak baliatu daitezke; horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar da dpd@galdakao.eus helbidera.





II. BERARIAZKO XEDAPENAK

21. artikulua. — Dirulaguntza emateko lerroa*Kirol federatua bultzatzea, sustatzea eta garatzea*

Diruz lagundu daitekeen kontzeptua: Kirol federatuaren programako jarduerak.

Xedea

Tokiko kirol-elkarte eta -klubei lotutako kirol federatuaren garapena erraztea. Laguntza horiek, zalantzarik gabe, jardueraren izaeratik eratorritako gastuetarako erabiliko dira. Hau da, kirol-programari datzekion jarduerekin eta jarduera horiek dakartzaten gastu arruntekin zerikusia dutenak.

Hauek dira berariazko helburuak:

- Kirol federatua garatzea eta sustatzea Galdakaoko udalerrian.
- Kirol federatura bideratutako teknikarien prestakuntza sustatzea.
- Kirola herritarrengana hurbiltzea, kirol anitzeko jarduera bultzatzeko eta etorkizuneko ohitura osasungarriak sortzeko.
- Kirolaren bidez euskararen erabilera sustatzea.
- Kirol-ekimen inklusiboak sustatzea.
- Bertako kirolak sustatzea.

Entitate onuradunak

Udalerriko kirol-elkarte eta -klubak, kirol federatua egiten duten taldeak osatzen dituztenak. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eusko Jaurlaritzako kirol-elkarteen edo -erakundeen erregistroan inskribatuta egotea.
- Galdakaoko Udaleko Kirol Elkarteen Udal Erregistroan formalki eratuta eta inskribatuta egotea.
- Beren estatutuen arabera, onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik, arrazagatik edo erlijioagatik ez diskriminatzea. Horregatik, erakundeek berariaz bete beharko dute 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Kirol-klubak dagokien kirol-federazioaren planari atxiki beharko zaizkio, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen den bezala.
- Egoitza soziala Galdakaoko udalerrian izatea.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak

Kirol federatua egiteko taldeen antolaketa sustatzen duten programak.

Diruz lagundu ezin diren jarduerak:

- BFAren eskola-kiroleko programaren barruan haurrei eta gazteei zuzendutako kirol-jarduerak sustatzen dituzten programak.
- Beste administrazio publiko batzuen berariazko dirulaguntza-deialdien xede diren programak.
- Kirol-eraikinak eta -instalazioak eraberritzeko edo mantentzeko obrak.

Laguntzak emateko irizpideak

Eskabideak baloratzeko, jarraian adierazirako irizpideak hartuko dira kontuan.

Irizpide horiek baloratuko dira baldin eta proiektuan berariaz azaldu badira, eta behar bezala arrazoituta eta/edo egiaztatuta badaude, salbu eta ofizioz egiazta daitezkeenak.





Irizpideak bi ataletan baloratuko dira (Erakundea eta Proiektua), ahalik eta hobeen taulatan sartu eta objektibatu ahal izateko. Gehienez ere 265 puntu emango dira erakunde bakoitzeko.

Erakundeari lotutako irizpideak (gehienez 160 PUNTU)	
1. Ibilbidearen urteak * – 14 urte edo gutxiago - 1 puntu. – 15 urte eta 39 urte bitartean - 2 puntu. – 40 urte edo gehiago - 4 puntu. * Urteak kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzako Erregistroko inskripzio-data hartuko da kontuan.	Gehienez 5 puntu
2. Zuzendaritza batzordearen batez besteko adina – 35 urte baino gazteagoak - 2 puntu. – 35 urte baino nagusiagoak - 1 puntu.	gehienez 2 puntu.
3. Lagatako lokala eta/edo propioa – Udalak eskusibotasunez lagatakoa - 0 puntu. – Beste erakunde batekin partekatua - 1 puntu. – Lokalik gabe - 2 puntu. – Jabetza pribatua eta beste batzuk - 3 puntu.	Gehienez 3 puntu
4. Fitxa federatuak dituzten kirolariak – 15 pertsona edo gutxiago - 0 puntu. – 16 eta 25 pertsona bitartean - 5 puntu. – 26 eta 50 pertsona bitartean - 15 puntu. – 51 eta 70 pertsona bitartean - 25 puntu. – 71 eta 150 pertsona bitartean - 75 puntu. – 150 pertsona edo gehiago - 120 puntu.	Gehienez 120 puntu
5. Bertako kiroletako fitxa federatuak – Kirolari bakoitzeko - 1,5 puntu. – Irizpide honen arabera baloratzen diren erakundeak ez dira aurreko irizpidean baloratuko.	Gehienez 75 puntu
Mendizaletasuneko, ehizako eta arrantzako fitxa federatuak Ez dira zenbatzen	
5. Kontratatu duten langileak (Plantilla+Talde teknikoa) – Kontrataturako pertsona bakoitzeko – 5 puntu	Gehienez 25 puntu
6. Kalitatea eta berrikuntza – Hedapen-kanalak (prentsa, kartelak...) eta IKTen erabilera (webgunea, bloga, sare sozialak...) - 1 puntu kanal bakoitzeko – Kalitate- eta kudeaketa-sistemak (3K programa...) - 2 puntu	Gehienez 5 puntu

Proiektuari edo programari lotutako irizpideak (gehienez 105 puntu)		
Irizpide orokorrak	Berriarazko irizpideak - Puntuazioa	
1. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA ETA KOHERENTZIA	– Metodologia - 1 puntu. – Proiektuaren memoria - 0,5 puntu. – Ebaluatzeko eta kontrolatzeko moduak - 1 puntu. – Aurrekontua - 1 puntu. – Aurreikusitako helburuak - 1 puntu. – Kronograma - 0,5 puntu.	Gehienez 5 puntu
2. FINANTZA-AHALEGINA: AUTOFINANTZAKETAREN EHUNEKOA	– Aurrekontuaren %1 eta %40 bitartean - 3 puntu. – Aurrekontuaren %41 eta %60 bitartean - 5 puntu. – Aurrekontuaren %60 baino gehiago - 8 puntu.	Gehienez 8 puntu
3. KIROLDEGIKO ABONATUEN EHUNEKOA	– %10 eta %30 bitartean - 1 puntu. – %31 eta %60 bitartean - 2 puntu. – %60 baino gehiago - 7 puntu.	Gehienez 7 puntu.

Ehunekoa kalkulatzeko, gainerako dokumentazioarekin batera, lizentzia federatua duten abonatuena zerrenda aurkeztu beharko da, izen-abizenekin eta NANarekin, kirol-arloak egiaztatuz ahal izateko.

EBAZPENA RESOLUCION
 Zenbakia: 2026-1293 Data: 04/06/2026

Baliozkotze Kod.: WPOPE673KMAAXOCF9ITZY293Y
 Egiaztapena: <https://gaitzak.euzkojardueraketa.eus/>
 esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orriarekin, guztira 25
 eek: BAO-2026a092-(II-2495)





Proiektuari edo programari lotutako irizpideak (gehienez 105 puntu)		
Irizpide orokorrak	Berariazko irizpideak - Puntuazioa	
4. IMMIGRAZIOAREN TRATAMENDUA	— Kirolari etorkinak edo immigrazio-ekintza espezifikokoak - 4 puntu.	gehienez 4 puntu.
5. DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN TRATAMENDUA	— Dibertsitate funtzionala duten kirolariak edo integrazio-ekintza espezifikokoak - 6 puntu.	Gehienez 6 puntu
6. GENERO-IKUSPEGIA	— Emakumezko kirolariak %40 baino gehiago - 3 puntu. — Emakumeen presentzia orekatua (%40 - %60) zuzendaritza-batzordean - 5 puntu. — Presidentea emakumea izatea - 2 puntu — Sexu-jazarpenerako eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenerako kasuak prebenitzeko eta horietan jarduteko protokoloa edo plana izatea - 5 puntu.	gehienez 15 puntu
7. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA*	— Galdakaoko Udalaren Euskara Kirolean sustatzeko Planaren partaide izatea - 3 puntu. — Harrobi aitortza-diploma edukitzea edo hori lortzeko prozesuan egotea - 2 puntu. — Gutxienez B2 ziurtagiria edo baliokidea duen entrenatzaile edo begirale bakoitzeko - 0,5 puntu, gehienez 5 puntu. — C1 ziurtagiria edo baliokidea duen entrenatzaile edo begirale bakoitzeko - 1 puntu, gehienez 5 puntu.	Gehienez 15 puntu
8. LEHIAKETA NAZIONALAK	— Diziplina bakoitzeko lehenengo hiru kategoria nazionaletako batean lehiatzeagatik - 45 puntu.	Gehienez 45 puntu

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1293 Data: 04/06/2026Baliozkotze Kod.: WPOPE673KMAAXOCF9ITZY293Y
Egiazapena: <https://galdakao.euzkadi.eus/esPublico/Gestiona/plataformatik/elektronikoki/sinatutako/dokumentua> | 25. orria, guztira 25
eek.: BAO-2026a09Z-(II-2495)